

# OPORRALDIAN MENDIRIK MENDI

Doinua: "Itsu aurreko"

1

Oporraldian mendian zehar  
Zer ibilaldi gozoa!  
Zoragarria iruditzen jat  
Gure izadi osoa.  
Arran ta dunbaz behi eta zaldi  
Bizi-pilpilka basoa...  
Hau ikusita berez sortzen da  
Otoitza eta bertsoa,  
Besteak beste, hauxe bai dala  
Munduko paradisoa.

2

Goian zerua ta behean lurra  
bitarte luze zabala,  
baso, zelaiak aurrean zabal  
Ama lurraren magala.  
Janaritzen ta gozatzen gaitu  
Amak umea bezala,  
Hemen biguntzen da gogorra ta  
Lasaitzen ziztrin petrala;  
Holako ama emon deuskun HA  
Ez da izan ez makala!

3

Kaletik urrun goiaren bila,  
Hau bakardade isila;  
Joan-etorri gozoan dantzut  
Hots, kantu ta doinu mila.  
Goiko basoan haizeak txistu,  
Ondoan txirtxir kirkila;  
Txoriak txor-txor, ardi-ahuntzak bee  
Egundoko iskanbila...  
Soinugaillu hau jotzen dauana  
Bai soinujole abila!

4

Izar, ilargi ta eguzkia  
Goitik argi egiteko,  
Lurra, aidea ta itsasoa  
Behetik jaten emoteko.  
Bizileku hau emon deuskunak  
Zoriontsu izateko,  
Ez dau onartzen batzuk mahaian ta  
Beste batzuk mahaiepeko;  
Alkarri jaten emon deiogun  
ez gero alkar jateko.

5

Hau da bakea, hau atsedena,  
Mendian beti dago jai,  
Jaialdi hontan parte hartzeko  
Bihotz-garbiak dira gai.  
Jainkozalea mendizale da  
Han sentitzen da Jainkoz blai.  
Mendiko jaia txastatuz gero  
Barrero noiz joango zai;  
Hemen gorputza gozatutzen da,  
Buru ta bihotza be bai.

6

Izadiaren eleiz haundira  
Behar da fedez hurbildu,  
Eta "Aitaren" eginaz bertan  
Barreneraino murgildu.  
Ardurak, kezkak eten ta bota,  
Kanpo ta barru isildu.  
Jainko amaren bihotz ondora  
Ume txikia lez bildu;  
Maitasunezko itsas hontara  
Ai, nor leiteken murgildu!

A.Martzel

